

KUTXABANK, ABAO BILBAO OPERAREN BABESLE BERRIA

- **Juan Carlos Matellanesek, ABAO Bilbao Operako presidenteak, eta Anton Arriolak, Kutxabaneko presidenteak, lankidetza-hitza sinatu dute eta, ondorioz, banku-erakundea opera-elkarteari Babesle gisa laguntzen dioten erakunde eta enpresen taldean sartu da.**
- **Kutxabanken lankidetza Bilboko operarekin Euskadin eszena- eta musika-arteak sustatzeko eta zabaltzeko duen konpromisoaren barruan dago.**

Bilbon, 2024ko ekainaren 21ean. ABAO Bilbao Operako presidenteak, **Juan Carlos Matellanesek**, eta Kutxabaneko presidenteak, **Anton Arriolak**, lankidetza-hitza sinatu dute gaur goizean bi erakundeen arteko batasun-aliantza sendotzeko.

Hala, akordioaren ondorioz, Kutxabank ABAO Bilbao Operari Babesle gisa laguntzen dioten enpresen eta erakundeen taldean sartu, eta ABAOren proiektu kultural, artistiko eta soziala babesteko interesa berretsi du. Izan ere, Kutxabankek, ABAO Bilbao Operak bezala, kultur ekintzak iraunkortasunaren, elkartasunaren, bikaintasunaren eta joera sozialaren ikuspegiari helduta egin daitezela laguntzeko eta bultzatzeko helburua du.

Juan Carlos Matellanesen esanetan, *“akordio garrantzitsua da, ABAO Bilbao Operak bere babesletza-programara enpresa eta erakunde liderrak erakartzeko duen asmo irmoan aurrerapausoa delako, kulturaren zabalkundeari laguntzearen eta genero lirikoa gizarte osoari hurbiltzea sustatzearen aldeko apustua egingo duten enpresa eta erakundeak, hain zuzen ere. Oso pozik gaude Kutxabanken babesa izateaz, eta lankidetza-hitza hauen alde biontzat oso aberasgarria izango delakoan gaude”*.

Kutxabaneko presidente Anton Arriolak adierazi duenez, *“akordioari esker, harreman estuagoa izango dugu gure Erkidegoko bizitza kultureko erakunde historiko honekin. Lankidetza gure balio korporatiboekin bat dator, alegia, Kutxabank dagoen lurraldeetan kultura-, hezkuntza- eta gizarte-erakundeak babesteko balioekin”*.

ABAO Bilbao Operaren xede nagusia jarduera liriko eta kulturalak programatzea eta kudeatzea da, gizarte-ikuspegi zabalez, erreferentziako opera-erakunde nazionala da eta nazioartean ere zabalkunde esanguratsua du.

Kutxabank gehituta, berrogeita hamar enpresa laguntzailek baino gehiagok babesten dute ABAO Bilbao Opera hainbat modalitatetan. Babesle etorri berriek, lehendik daudenen fideltasunak eta erakunde publikoen ekarpenek elkartearen aurrekontuen % 26 osatzen dute.

Kutxabanki buruz

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, kapilaritate handieneko sukurtsal-sarea bere jatorrizko lurraldeetan, eta presentzia nabarmena Andaluzian, Madrilan eta Katalunian. 5.000 profesionalak baino gehiagok osatutako taldearekin, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profilik onena duen hirugarren erakundea da, Europako ikuskatzaileen arabera.

Informazioa: Cristina García Sanz – 650 854 541 cristina.garcia@abao.org